

[Eusk/Cast] Non dago Maider? / ¿Donde está Maider?

LOREZAINAK BORROKAN :: 06/08/2025

Durante todo este tiempo la Sra Maider Etxebarria, alcaldesa de Gasteiz, ha permanecido desaparecida del conflicto laboral, sin conceder una sola reunión al comité de huelga

[Euskara]

NON DAGO MAIDER?

Lau hilabete daramatzagu greba mugagabea, hitzarmen propio baten eta lan-baldintza duinen alde. Lau hilabeteko greba honetan, udaltzainek piketeetan bortizkeriaz zapaldu gaituzte, hirian jarraitzen gaituzten eta mobilizazio bakoitzean zelatatzen gaituzten polizia "sekretek" jazartzen gaituzte, enpresak eskaintza barregarriak eta miserableak egiten dizkigu, 11 lankideren kontrako salaketa penalak abiatu ditu, eta Espazio Publiko eta Auzoetako Saileko (sail honi dagokio guk ematen dugun zerbitzuaren kudeaketa) zinegotzi den Beatriz Artolazabalek ere salaketa penala jarri du gure aurka San Joan sutan egindako parodia batengatik.

Eusko Jaurlaritzak, udalak eta enpresak hala eskatuta, neurriz kanpoko gutxieneko zerbitzuak ezarri dizkigu, enpresaren irizpidea jarraitzen dutenak. Gainera, enpresak uko egiten dio bajak jasotzeari eta ordaintzeari, eta hori langile gisa ditugun oinarritzko eskubideen urraketa da.

Denbora honetan guztian, Maider Etxebarria andrea, Gasteizko alkatea, lan-gatazkatik kanpo mantendu da, desagertua, egoera konpondu nahi duenaren seinalerik eman gabe, ez baitio bilera bakar bat ere eskeini greba-batzordeari.

Berari buruzko albiste bakarra joan den astean izan dugu, komunikabideen bidez. Bertan, gatazka bat konpondu nahi duen norbaitengan ezohikoa den harropuzkeriaz eta prepotentziaz, zera leporatzen digu: "justifikaziorik gabeko greba ari garela egiten, arrazoi politikoengatik direla gureak lan arazoa baino gehiago eta konponbide bideragarri bat eskuan izatea".

Lehenik eta behin, Etxebarria andreari esan behar diogu guztia dela politikoa, eta hortik abiatuta, argi eta garbi, greba politikoa dela; baina ez bideratu nahi duzun eran; izan ere, adierazpen horiekin saiatzen ari zara lan-gatazkaren presioa gainetik kentzen.

Gure erabaki guztiak batzarrean hartzen dituzte Enviserreko langile guztiek. Batzarra langileak ahalduntzeko tresna bat da, eztabaidarako gunere ireki bat, eta bertan erabaki dugu enpresak planteatu digun eskaintza barregarria ez onartzea eta berdin Eusko Jaurlaritzaren eskaintzarekin, enpresaren berdina denez. Eztabaida horietan ere hasierako plataforma aldatzea erabaki dugu, eta bi proposamen egin ditugu. **BOTERE GUZTIA BATZARRERA**, zure alderdiak martxoaren 3an paripea egingo ez balu, agian gogoratuko luke lelo hori.

Greba politikoa da, egoera honetan gaudelako oraingo gobernu taldeak eta aurrekoek

hartutako erabaki politikoengatik, non lehentasuna ematen baitzaio multinazional handien mozkinari, udaleko azpikontratetako langileen prekarizazioaren kontura. Zaborren bilketaren kontratuaren lizitazioa ikustea besterik ez dago; hura hutsik geratu zelarik, multinazionalen presioaren aurrean, udalak ez zuen zalantzarik izan kontratu horren aurrekontu-partida handitzeko; aldiz, azpikontratetako langileak garenean hitzarmen propioa eta lan-baldintza duinak eskatzen ditugunak, erabaki politikoen bidez ukatzen zaizkigu.

Ez eskatu barkamenik herritarrei, eta hasi lanean gatazka honi irtenbide bat emateko. Izan ere, orain arte desagertuta egon zara, Gasteizko alkate zaren aldetik dituzun betebeharra bete Gabe. Eseri gurekin eta gure prekarietate-egoera ulertzearen alde egin ezazu, zure egoa eta nagusikeria alde batera utzita, guztion artean alde guztientzat konponbide bideragarri bat lor dezagun. Egoera hau ez da atsegina inorentzat, baina batez ere greban lau hilabete daramatzagun langileontzat. Etxebarria andrea, gatazka hau borondate politikoarekin konpontzen da.

[Castellano]

¿DONDE ESTA MAIDER?

Llevamos cuatro meses de huelga indefinida por un convenio propio, y unas condiciones laborales dignas. En estos cuatro meses de huelga; hemos sido reprimidas con violencia en los piquetes por parte de los municipales, estamos siendo acosadas por secretas que nos siguen por la ciudad y vigilan en cada movilización, la empresa nos está ninguneando con unas ofertas ridículas y miserables, ha denunciado a 11 compañeras por lo penal y la Sra concejala del Departamento de Espacio Público y Barrios, Beatriz Artolazabal, de la que depende nuestro servicio, también ha interpuesto una denuncia por una parodia realizada en las hogueras de San Juan.

El Gobierno Vasco a petición del ayuntamiento y de la empresa, nos ha impuesto unos servicios mínimos abusivos y totalmente abiertos al criterio de la empresa, además, la empresa se está negando a recoger las bajas y a pagarlas, lo que es una violación de nuestros derechos fundamentales como trabajadoras.

Durante todo este tiempo la Sra Maider Etxebarria, alcaldesa de Vitoria-Gasteiz, ha permanecido desaparecida del conflicto laboral sin dar señales de querer resolver esta situación, puesto que no ha concedido ni una sola reunión al comité de huelga.

La única noticia que hemos tenido de ella ha sido la semana pasada a través de los medios de comunicación, donde nos acusa con una chulería y prepotencia inusual en alguien que quiere resolver un conflicto de: “ una huelga injustificable, que es más por cálculos políticos que laborales y de tener una solución viable en la mano”.

Primeramente decirle a la Sra Etxebarria que todo es político, partiendo de ahí claro que es una huelga política, pero no desde donde usted la quiere enfocar, ya que lo que intenta con estas declaraciones es quitarse la presión del conflicto laboral de encima.

Todas nuestras decisiones son tomadas en asamblea por el conjunto de las trabajadoras de Enviser, la asamblea es una herramienta de empoderamiento de las trabajadoras, un espacio de debate abierto donde hemos decidido tumbar las ofertas irrisorias que se nos han planteado desde la empresa y la de Gobierno Vasco, que venía a ser la misma que la de la empresa, también en esos debates hemos decidido modificar la plataforma inicial, haciendo hasta dos propuesta. TODO EL PODER A LA ASAMBLEA, si su partido no fuera a hacer el paripé el 3 de Marzo quizá lo recordaría.

Es una huelga política porque estamos en esta situación por las decisiones políticas llevadas adelante por su equipo de gobierno y de los anteriores, donde se prioriza el beneficio de grandes multinacionales a costa de la precarización de los trabajadores de las subcontratas del ayuntamiento. Solo hay que ver la licitación del contrato de basuras, que quedó vacío y ante la presión de las multinacionales el ayuntamiento no dudo en aumentar la partida presupuestaria de dicho contrato, mientras que cuando somos las trabajadoras de las subcontratas quienes exigimos un convenio propio y unas condiciones dignas de trabajo se nos deniegan por decisiones políticas.

No pida disculpas a la ciudadanía y póngase a trabajar para dar una solución a este conflicto, ya que hasta ahora ha estado usted desaparecida, ejerciendo una autentica dejadez de sus deberes y obligaciones como alcaldesa de Vitoria-Gasteiz, siéntese con nosotras y haga por entender nuestra situación de precariedad, dejando de lado su ego y prepotencia para llegar entre todas a una solución viable para todas las partes, esta situación no es agradable para nadie, pero sobre todo las trabajadoras que llevamos cuatro meses de huelga, Sra Etxebarria este conflicto se soluciona con voluntad política.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-non-dago-maider-donde-esta>